

B

BARREN

TOKIKOM

Goitik 50 urte

Jose Gurrutxaga, Sabin Argarate, Jose Elizondo eta Sabin Osoro

CNC FRESADORE LANGILEA (Erref: DG 0044)

- Goimek zehaztasun handiko mekanizazio lanetan aditua den kooperatiba bat da.
- Mekanizaziorako irtenbide osoak, kalitatea, doitasuna eta zerbitzua bermatzen dugu.
- Gure aktibitatea makina erraminta, aeronautika eta trenbide sektoreentzako doitasunezko pieza handien mekanizaziora bideratzen dugu.

ZEREGINAK:

Fresatzeko makina handien erabilera menperatzea (Zubiak, zutabe mugikorrek makinak edo mandrinatzekoak), bai arbastatze eragiketa eta baita akaberakoetan esperientzia duena ere.

ESKATZEN DA:

- Titulazioa: Goi-mailako heziketa-zikloko trebakuntza.
- Hizkuntzak: Euskara menperatzea.
- Esperientzia zabala antzeko lanposturen batean.
- CNC Heidenhain menperatzea.
- Ekimena.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Egiaztapen fresnak (Alexometroak, mikrometroak, etab.) erabiltzekoezagutzak izatea.

ESKAITZEN DA:

- Berehalako inkorporazioa.
- Esperientzia eta gaitasunen araberako soldata.

DANOBTGROUP

Interesatuak bidali CV Giza Baliabide departamentura: ecarballo@goimek.com



OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Bartolome, 10
Elgoibar
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21
Elgoibar
Tel: 943 740 359

MASAJISTAK

22\12

VICTORIA IRAEGI

- Esku terapiak
 - Kiropraxia
 - Dranatzaille linfatikoa
 - Osteopatia
 - Kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea)

Astehenetik Ostiralera:
8:00 / 14:00

San Frantzisko kalea, 40
(atzealdea) - Elgoibar
Tel.: 943 740 770

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI
- Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053 - lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia
- BERRIA!**
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21
Elgoibar
Tel: 943 740 359





Danele Sarriugarte

Beldurra ematen didate aditz iragangaitzek, Mikel. Da, dago, ari du estatiko horiek, Mikel, erantzulerik gabekoek, ekintza ez duela inork eragin diotenenek, egoera naturala dela diotenenek. Labainkorrak eta tranpatak dira, ezin naiz sekula fida, gutxien espero dudanean sartuko didate labankada. Beldurra ematen didate aditz iragangaitzek, Mikel, ondo irekita ditut begiak, erne ez nagoen uea baliatuko dute-eta mendebaldeko mandatari-txotxongilo gainelikatuaren ahoetatik salto egin, berri-zuloetatik sartu eta giza-duintasanaren muina birrintzeko, nigan datzan kritika ahalmen oro xurgatzeko. Beldurra ematen didate aditz iragangaitzek, Mikel, errepikaren errepikaren errepikaz edozer sinestara baitiezadakete, kasu munduko publizista-saltzaile-demagogo bikainenek munduko lurjabe gainelikatueneztat bereziki diseinatuta-



Mikel Olaizola

Duintasuna non dago, ordea, Danele? Praxak bezainbeste jaitsi daiteke. Osasuna eta hezkuntza pribatizatuko dizkigute, zorra eta prekaritatea unibertsalizatuz. Baina koadrilla-ko afarian, poteo ostean, ze kristo: "Gu baino hobeto dagoena kabroia galanta".

Eta kabroiz beteta mundua. Baina putakumea kategorizatu dugu, eta generiko, abstraktu bihurtu. Ez dute izenik, ez aurpeirik. WallStreet edo Suitzako marrazo orokortuak dira guretzat. Bankero, politikari, enpresari... izenpean biltzen diren konketruak ez ditugu ikusgai, ezezagun zaizkigu. Gure gorroto eta sumindura abstraktuen aurka zuzentzen ditugu, eta Jainko leporik ezin pasa gillotinatik. Sutan behar genuke, baina erreta gaude. Izurria ohitu gara, hartara egokitu beste aukerarik ez dugulakoan. Camusen Oran haustuan, desesperazioaren ohitura desesperazioa bera baino okerragoa da. Paralisia dakar mugagabeari erantzun beharrak.

“Beldurra ematen didate ekintza ez duela inork eragin dioten aditzek”

ko diskurtso zuritzaile ustel gezurrezkoa; alegia, krisia ari duela. *Status quo*-a berezkoa dela eta iruzurra inpartziala eta ondasunen asimetria ekidinezina eta gosea merezitakoa. Beldurra ematen didate eguraldi metaforek aditz iragangaitzen eskutik doazenean, Mikel, argi ibili behar dut, *la que está cayendo* ez da egia, gehiago da sartzen ari zaizkigun ziria, lodi-lodia. Beldurra ematen didate aditz iragangaitzek iragankor bilakatzen direnean, Mikel, amarru makurren bitartez igarotzen dira-eta erantzule ikusezina izatetik errua guri leporatzera, Stockholmeko sindrome akutua jota edozer esanaraztera: gure gaitasun ekonomikoaren gainetik bizi izan gara, edo gerrikoa estutu beharko dugu, edo kexatzeko moduan ez gaude, gutxienez lana daukagu.

Beldurra ematen didate, Mikel, bizirauteaz gain duin bizi nahi izatea ez baita sekula izango larregi eskatzea.

“Gure gorroto eta sumindura abstraktuen aurka zuzentzen ditugu”

Jomugak konkretizatu behar ditugu. Iragan(-) gaitzen atzean pertsonak daude, eta erantzukizunak. Baina, Danele, hain zaizkit jator eta sinpatikoak gertuko enpresari, bankari eta politikoak! Adeitsu agurtzen nautete eta ez dute gaizto itxurarik; batzuek korbatarik ere ez. Nolatan izango da euren errua nire langabezia eta etxegabetzea? Nire txotxongilotasunetik tarteka pentsatzen dut denok dugula erru apur bat, konponbidea ere denon esku egon daitekeen bezala.

Zozoa eta belea traje beltzez dabilta beti, lutoz. Plazan beti moztaroz ni, Danele. Eta azkenean egunerokotasunean beste batzuk ditut kezka, krisi quasi-teologikoaz harago, kontu lurtarrak. Nire ipurdia aulki bigunean gustura dago sermoilari. Puteatu(ago)ak zaudetenok, ez egon inoren zain, zuek ekarriko duzue aldaketa.

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
 San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189

B ARREN
 astekarian
 943 744 112
 barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Jarri ezazu zure publizitatea
 BARRENen edo www.elgoiBARREN.net
 webgunean

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikun.

COORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA
ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA
Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel
Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta,
Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi
Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari
Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez,
Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo
Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga,
Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-
1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikun. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

San Martindarren peskizan (eta III)

Gogoratuko zarete Elgoibarko arbasoak zituen getariar gizon batek eskatuta, Elgoibarko San Martindarren peskizan ibili garela azken hilabeteotan ea haren senitartekorik bilatzen ote genuen gure herrian.

Azken hariak Eibarrera eraman gintuen. Han hil zen duela urte batzuk Rosario San Martin andrea, getariar horren lehengusina bakarra zena. Uste genuen bere horretan, hortxe amaituko zela zoritarrez gure bilaketa.

Baina ez. Zoria gure alde izan dugu: **BARRENEKO** orriei esker, Rosario zenaren seme batekin eta biloba batekin topo egiteko aukera izan dugu, eta getariarrak bere senitartekoak ezagutzeko parada izan du. Getarian egin zuten bat duela pare bat aste.

Andres Alberdi ☺

Elgoibarko EAJ-PNVren ikuspuntua euskal gazteen epaiketaren aurrean

Azkenaldi honetan Euskal gazte batzuen atxiloketa eta epaiketen aurrean:

1. Intenzionalitate politikoko epaiketa guztiak bertan behera gera daitezela eskatzen dugu.
2. Dagozkien eskubide zibil eta politikoak praktikatzegatik auziperatuak eta zigortuak izan diren pertsona guztien berehalako askatasuna eskatzen dugu.
3. Azken hamarkadan legez kanpo utzitako antolakunde sozial eta politiko guztien legeztatzea eskatzen dugu.
4. Herritarren eskubide zibil eta politikoen urratzaile den Alderdien Legearen baliogabetzea eskatzen dugu.

Elgoibarko EAJ-PNV ☺

Mbaye gogoan

Harri eta zur utzi ninduen pasa den aste-ko **BARRENEKO** berriak, Mbaye: ez zaitugu gehiago ikusiko zure karrotxoari tiraka.

Ez nekien nola idazten zen zure izena (Nbai edo horrelako zerbait zela uste zuen ezjakin honek), eta berri makur honen bidez enteratu behar. Badakizkit, ordea, beste gauza batzuk, beharbada garrantzitsuagoak: zu-

re bizimoduaz, zure erlijioaz, zure emazte eta seme-alabez, gureez jarduten genuen, zure ametsez, zure aurpegi irribarretsuarekin beti.

Guregana etortzen zinen gu ikusi bezain pronto, beharbada ez zinelako gaizki sentitzen gure artean, beharbada tarteka zerbait erosten genizulako, beharbada konpainia bi-latzen zenuelako (tabernarik taberna jendez inguratuta ibiliagatik, bakardadeak ere bisitatzten gaitu gutako edozein, eta gehiago zu bezalako jendea); eta gozatzen genuen zure-kiko tratu gozo eta lasaiaz, zure irribarrez, gure seme-alabekin erakusten zenuen esku-zabaltasunaz. Horixe gozatzen genuela!

Emaztea eta sema-alabak ekartzea eta haiekin hemen elkartzea zen zure nahia, eta jadanik ezinezkoa izango da; bete daitekeen zure beste desio bat betetzen lagundu nahi dut, ordea, eta jendea horretara animatzea.

Caja Laboralean (3035 0004 90 0040022549) kontu bat ireki dute zu familia-rekin berriz elkartzeko dirua biltzeko, eta nik egingo dut bisita. Espero dut elgoibartar askok ere egitea, bakoitzak ahal duen moduan.

Besarkada estu bat, Mbaye, zure esku zabal eta beso luzeekin. Adiorik ez, *amigo!*

Jesus Mari Makazaga ☺

Eskerrik asko

Lerro hauen bidez, Elgoibarko Mbaye Lagunak taldeak eskerrak eman nahi dizkie Mbaye Ndiaye saltzaile ibiltari senegaldararren gorpua aberriratzeko diru bilketa kanpainen lagundu duten guztiei. Eskerrik asko, Mekanosari, fotokopiak egiteagatik. Mila esker, King Kong eta Gabi tabernei, kalean egindako diru bilketarako mahaiak lagatzeagatik, eta eskerrik asko, era berean, Iturri, Tantaka eta Pizzeria Salento tabernereri, Pitxintxu liburu-dendari, Castrillejo estankoari, Iriondo Kirolak dendari eta bonoak saltzen jardun duten norbanakoei. Eta nola ez, eskerrik beroenak, bizi dugun garai zail honetan dirua eman duzuen guztioi. Elgoibarren, 2.433 euro batu ditugu lau egunean, eta eskualde osoan, 17.500 euro guztira. Eskerrik asko denoi.

Elgoibarko Mbaye Lagunak ☺

Urtarrilean...

JAIOAKOAK



Aimar Ramos Bueso
Urtarrilak 14
Angel Luis eta Iratxe



June Iraolagotia Urkizu
Urtarrilak 31
Azibar eta Nerea

Mikel Larrañaga Agirregomezkorta
Urtarrilak 6
Ivan eta Idoia

Salma El Hachmi
Urtarrilak 5
Abdelaaziz eta Amal

Ander Garate Osoro
Urtarrilak 5
Aitor eta Nerea

Umme Habiba Tanveer
Urtarrilak 15
Ahmedeta Akhtar

Ignacio Curvelo Tavares
Urtarrilak 14
Elio Franclim eta Luana

Intza Baglietto Olaizola
Urtarrilak 18
Eneko eta Andrea

Julen Muñoz Mendo
Urtarrilak 22
Unai eta Sonia

Haizea Berdonces Zalba
Urtarrilak 23
Peio eta Iera

Anderson Gerardo Salinas Villca
Urtarrilak 27 Edison
Gerardo eta Lizeth

Sare Astigarraga Carcedo
Urtarrilak 29
Imanol eta Patricia

Lucia Martin de Jesus
Urtarrilak 30
Oscar eta Lorena

HILDAKOAK

Angel Martinez de Iturrate Delica • 58 urte • Urtarrilak 1
Salvador Felix Izagirre Bernedo • 61 urte • Urtarrilak 1
Antonio Barrenetxea Urkiola • 69 urte • Urtarrilak 2
Agustin Astigarraga Totorikaguena • 60 urte • Urtarrilak 3
Eduardo Barandela Quintana • 73 urte • Urtarrilak 6
Julio Uria de Los Bueys • 85 urte • Urtarrilak 6
Rosa Kalzakorta Garagartza • 92 urte • Urtarrilak 21
Jose Luis Balzola Suinaga • 62 urte • Urtarrilak 22
Mari Lopez Morante • 90 urte • Urtarrilak 22
Eusebio Esnaola Egozkue • 79 urte • Urtarrilak 30

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRENEKO** erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik Elgoibarko Izarrako bazkideek **3 euro** ordaindu behar dute eta gainontzekoek **4 euro**.



ESKERTZA
SEBASTIAN LARRAÑAGA ARRIZABALA

2013ko otsailaren 14an hil zen, 76 urte zituela
“Joan zaren arren, gu beti gaude zurekin”

Mila esker ondoan izan zaituztegun guztioi



Iñaki Hernandez IMHko ikasleak urrezko domina lortu du Lanbide Heziketako World Skills Spain olinpiadetan

Mekako ikasle Josu Etxeberriak laugarren egin du, Ibilgailuen Pintura proban



Bigarren urtez jarraian, IMHko ikasle bat nagusitu da Lanbide Heziketako World Skills Spain olinpiadetan, aurten CNC Torneaketa proban: Iñaki Hernandez, 22 urteko azpeitiarra. Lehen postua eskuratzeaz gain, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako onena ere izendatu dute, eta munduko txapelketarako sailkatu da. Uztailaren 2tik 7ra bitartean jokatu dute munduko txapelketa, Alemaniako Leipzig hirian.

Josu Etxeberria Mekako ikasleak ere hartu zuen parte Madrillgo World Skills Spain olinpiadetan. Eusko Skillsen Ibilgailuen Pintura izeneko proba irabazita sailkatu zen Madrilerako. Han, erkidego bakoitzeko irabazleen aurka aritu zen, eta laugarren postua eskuratu zuen. Andaluziako ordezkariak irabazi zuen proba eta Madrilekoak eta Kataluniakoak sailkatu ziren bigarren eta hirugarren.

Erreminta makinako ordezkariekin batu da Markel Olano Elgoibarren

EAJren Gipuzkoako batzarkide taldearen bozeramaile Markel Olanok eta Elgoibarko alkate Alfredo Etxeberriak bilera egin zuten martitzenean Elgoibarko erreminta makinako elkartearen ordezkariekin. Era berean, Elgoibarko bi enpresa bisitatu zituzten. Enpresa horiek egindako azkeneko inbertsioak ikusteaz gain, krisiaren aurkako plana egiteko ideiak eta ekarpenak jaso dituzte.



Ainara Ladron gazteari babesa agertu zioten zapatuan Elgoibarren



Atzo hasi zuten Donostian Ainara Ladron elgoibartarraren eta beste lau

gazteren kontrako epaiketa. Segi gazte erakundea "terrorista" izendatu

zutela salatzeke, A8 autobidea moztu zuten 2007an. Desobedientzia ekintza izan zen, eta orain, 30na hila-beteko kartzela zigorra eskatzen du fiskalak haientzat. Horren harira, Elgoibarko Gazte Asanbladak, Elgoibarko ezker abertzaleak, eta Aralar eta Eusko Alkartasuna alderdiek oinarri politikodun epaiketak amaitzeko, azken hamarkadetan legez kanporatutako erakunde politiko eta sozialak legeztatzeke eta Alderdien Legea indargabetzeko eskatu dute, prentsa ohar baten bidez.

Ekitaldia **Logroñoko martxa**

Bateragune auzia salatzeko martxoaren 2an, Logroñora egingo duten martxan parte hartzera deitu dute Sonia Jacinto, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arnaldo Otegi eta Arkaitz Rodriguezen senideek eta Arnaldo askatu, politika askatu herri ekimenak. Logroñoko kartzela aurrean egingo dute ekitaldia, 12:00etatik aurrera. Autobusa 10:00etan irtengo da Elgoibartik, eta txartelak salgai daude Iratxo, Lanbroa, Jai Alai eta Iturri tabernetan. Ekitaldia amaitu bezain laster itzuliko dira, eta ondo bidean, 15:00etarako Elgoibarren izango dira. Era berean, Logroñoko martxaren deitzaileek aurreratu dute bake eta elkarbizitza lantaldeko Jonan Ferndandez bilera eskatua diotela, gaia euren batzordearen gai ordenean sartu dezaten. Horrez gain, bihar elkarretaratzea egingo dute Kalegoen plazan, 13:00etan.

Izena **Gizonak, genero indarkeriaren aurka**

Genero indarkeria salatzeko plataforma sortu du gizonezko talde batek Elgoibarren, eta astelehenean aurkeztuko dute, 19:30ean Kultur Etxean. Bost puntuko adierazpen bat kaleratu dute, eta sexismoaren adierazpen guztiak errotik amaitzeko plataformara batzera deitu dituzte Elgoibarko gizonak. Adierazpen horretan, genero indarkeria gaitzetsi eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean "erantzun irmoa" emateko eskatu diete gizarteari, erakundeei eta legediari, eta era berean, ohartarazi dute emakumeen kontrako indarkeria kasuen aurrean isilik gelditzea azkena dela.

Zenbakia **17.500 euro**

Bergarako Senegalen Lagunen Elkarteak diru bilketa kanpaina hasi zuen Mbaye Ndiaye orain hamabost egun hil zen saltzailearen gorpua aberriratzeko, eta lau egunean 17.500 euro batu dituzte, horietatik 2.433 euro Elgoibarren. Hori dela-eta, bai elkarte horrek eta baita Elgoibarren dirua biltzen jardun duten lagunek eskerrak eman nahi dizkiete herritarrei, lortu dutelako Ndiayeren hilotza Senegalera eramatea.

Zozketa **Txankakuaren zozketa**



Txankakuak urtero Eguberrien bueltan egiten duen zozketako sariak banatu ditu. Arturo Andradek eta Gregorio Arregik 500 euroko erosketa bale bana jaso dituzte, eta gainerako sarituek 100 euroko erosketa bale bana. Mari Tere Arriola, Gemma Monreal, Rosa Maria Mateo, Paki Lucha, Maider Oñederra eta Ainhoa Idarragak jaso zituzten sariok. Era berean, 100 euroko bi sari banatu gabe laga zituzten, zenbaki sarituek (02.785 eta 36.290), zein erreserbakoak (46.686 eta 98.778) agertu ez direla-eta.

Bizikidetzari eta adiskidetzeari buruzko foroa

Bizikidetzari eta adiskidetzeari buruzko kultura bultzatzeko Lokarrik antolatutako foroan parte hartzera gonbidatu ditu herritarrek Elgoibarko Udalak. Lehenengo saioa atzo izan zen, eta beste biak martxoaren 7an eta 21ean egingo dira, musika eskolan. Foro bakoitzean 10-15 lagun elkartuko dira, eta dinamizatzaile bat izango dute. Prozesuan zehar iritetzen diren ondorio eta proposamenak herritarrekin partekatuko dituzte bukaeran. Interesatuak 943 743 700 telefonoan eman behar dute izena.

Arnaldo Otegi, Sorturen idazkari orokor kargurako

Zapatuan bozkatuko dituzte herri batzarretan Sortu alderdiko karguak osatzeko zerrendak, Iruñean. Gara-k asteon eman du prozesu eratzaillea zuzentzen ari den taldeak proposatuko duen zerrendaren berri, eta zabaldu du Otegi idazkari nagusi izateko babes handia jaso duela. Baina Otegi Logroñoko espetxean preso dagoenez, militanteek hala onartzen badute behintzat, kargu hori hutsik lagako dute, Otegi libre lagatzen dute nerako. Elgoibarko ezker abertzaleak autobusa antolatu du ekitaldira joateko. 16:00etan irtengo da Txankakoa-ko zubitik eta interesatuak Jai Alai eta Iturrin eman behar dute izena.

Pintxo solidarioa antolatu dute gaurko

Elgoibarko ostalariekin elkarlanean pintxo solidarioa ekimena antolatu du gaurko Odontologos del mundo gobernuz kanpoko erakundeak. Malala, Iriondo, Txarriduna, Gran Siglo, Pilon, Lanbroa, Malape, Ilunpe eta Viento Sur tabernetan euro batean jarriko dituzte gaur pintxoak, eta lortzen duten irabazien erdia erakunde horri emango diote gero. 19:00etan hasiko da poteoa. Gauean, argazki erakusketa ere izango da Gabaz tabernan, eta han kontsumitzen den edari bakoitzeko euro bat erakunde horretara bideratuko dute.

BEGIAK VATIKANOAN

Otsailaren 28an kargua lagako duela iragarri du Benedikto XVI. aita santuak. Eliza Katolikoko burua izateari lagako dio, Vatikanoko estatuburu izateari, eta Joan Paulo II.aren heriotzaren ostean gertatu bezala, albisteak oihartzun handia hartu du. Hiru eliztar batu ditu BARRENEK, Benedikto XVI.aren agintaldiaren gaineko balorazioa egin eta Elizaren geroaz berba egiteko.

Ainara Argoitia

● MIREN FERNANDEZ (Elgoibar, 1979)

Katekesia ematen du Elgoibarko parrokian, eta jesuitei laguntzen ere aritzen da bai Donostian eta baita Loiolako basilikan ere. Elizak berri-tu beharra duela dio.

Nola hartu duzu berria?

Normal. Iruditzen zait aita santuak gazteagoak izan beharko liratekela, irekiagoak, Elizak aldaketa behar duelako.

Uste duzu aita santu gazte bat izendatzeak balioko duela Eliza beritzeko?

Bai. Gustatuko litzaidake, gainera, aita santua afrikarra izatea, garatzeko bidean dagoen herrialde batekoa. Afrikan beste modu batean bizi dute erlijio katolikoa, eta iruditzen zait eredu egokia dela. Han badaude apaiz ezkonduak, guraso diren apaizak...

Elizako egitura ez duzu gustuko hortaz.

Ez. Vatikanoko ematen duen irudia Ebanjelioan esaten denaren kontrakoa da. Diru asko mugitzen da, eta Elizak apalagoa izan beharko luke. Aita santuak egiten dituen bidaia guztiak, bidaia horietan gastatzen duten dirutza... Ebanjelioari lotu behar zaio Eliza. Aita santuaren aukeraketa bera ere ikaragarria da. Interes politiko eta ekonomikoak daude hor tartean, eta interes horien arabera aukeratuko dute bat edo beste aita santu kargurako, eta ez Elizaren benetako beharren arabera. Eliza osatzen dugunon ahotsa gehiago hartu beharko lukete kontuan. Elizaren gaurko egitura oso astuna da, eta burokrasia handia dago. Eliza barruan, badaude egon, erakunde eredu-garriak, baina hierarkia hori ez zait gustatzen.

Aita santua estatuburu ere bada. Uko egin beharko lioke kargu horri?

Bai. Vatikanoko ematen duen ereduak jende asko aldendu du Elizatik. Elgoibarren katekesia ematen dut eta jesuitei laguntzen ere ibiltzen naiz Loiolan (Azpeitia) eta Donostian, eta

bai, ikusten dut gazte jendea badagoen arren, Elizaren bueltan gehiago direla helduak. Donostian gazte asko dabilta, egia esan, baina gehienak Opus-ekoak edo talde berezietakoak dira. Lehengo Eliza eredu horri heltzen diote, eta ni ez naiz horren aldekoa, Eliza horrek beldurra transmititzen duelako eta hori ez delako Nazaretoko Jesusek aldarrikatzen zuena. Nik beti pentsatu izan dut emakumeek ere eskubidea izan beharko luketela apaiz izateko.

“Vatikanoko ematen duen ereduak jende asko aldendu du Elizatik”

Aita santua Madrilen izan zenean gazte asko batu zitzaizkion. Zuk parte hartu zenuen ospakizun haietan?

Ez. Gazte haietako asko kanpotik etorri ziren, eta bidaiaren zati handi bat finantzatuta, gainera. Ni jesuitei laguntzen ibili nintzen Donostian, baina ez nintzen Madrilera joan, ez nagelako oso konforme Vatikanorekin. Niretzat gehiegizkoa izan zen hura. Gastatu zen dirua bazegoen hobeto erabiltzerik. Jende asko bizi da behar larrian, baita hemen bertan ere. **Eliza Katolikoaren oinarria osatzen duzu zuk ere, baina oso kritikoa zara Vatikanorekiko. Nolatan jarraitzen duzu egitura horren pean?** Jesusek eta ebanjelioak betetzen nautilako



eta askotan pentsatu izan dudalako gauzak aldatzekotan barrutik aldatu behar direla.

Etxetik datorkizu sinismen hori?

Ez. Etxean ni naiz eliztar bakarra. Umetatik bizi izan dut nik kristautasuna modu berezian. Umetan, apaiz izan nahi nuen eta barre ere egiten zidaten etxean. Beste garai batean jaiotze behar nuela esaten zidaten, eta Elizara joateari ere utzi nion aldi batez, baina niri errezzatzeak eta eukaristian parte hartzeak indarra ematen dit. Bizitzan sortzen diren galdera eta kezkei erantzuten laguntzen dit fedeak.

Aita santu berria nor izan daitekeen espekulatzeko ere hasi dira. Aukerarik ikusten duzu zuk nahiko zenukeen buruzagari tipoa aukeratzeko?

Ez. Orain arteko bideari eutsiko dio hurrengoak ere. Kritiko agertu direnak baztertzeko joera izan du orain arte Vatikanokoak. Ikusi zer gertatu zen Jose Antonio Pagola bikarioarekin ere, *Jesus* liburua argitaratu zuenean.

Ezkontzaz kanpoko harremanak, preserbitiboaren erabileraren kontrako kanpaina... Gaztea zara zu. Nola bizi dituzu halakoak?

Elizaren goi-organo horrek iritzi bat zabaltzen du, baina nik ez dut bat egiten esaten duen guztiarekin, eta libre sentitzen naiz pentsatzen

dudana egiteko. Ideia asko zaharkituak iruditzen zaizkit, eta gainera, iruditzen zait halakoekin ez dela Ebanjelioan esaten dena betetzen. Vatikanoa eta gaurko apaiz asko direna baino askoz irekiagoa zen Jesus. Azken ba-

tean, Jesus ez zuen inor bazterten eta denei ematen zien babesak.

Umetan apaiz izan nahi zenuela aitortu duzu.

Orain ere bai? Aukerarik ikusten duzu?

Ez dut aukerarik ikusten. Lehengo gotzaina-

rekin harreman estua neukan, eta behin baino gehiagotan esan izan nion apaiz izatea gustatuko litzaidakela, baina berak ere esan zidan Eliza Anglikanora-edo pasa ezean, zaila izango nuela.

● MARIA DOLORES BERISTAIN

Zortzi seme-alabaren ama da, katekesia ematen du Elgoibarren, eta neokatekumenalen mugimendukoa da. 2011ko abuztuan Madrilan izan zen Benedikto XVI.a ikusten, alabetako birekin.

Nola hartu duzu Benedikto XVI.ak emandako berria?

Sorpresa handia izan da. Pisuzko bi arrazoi eman ditu berak: batetik, esan du Jainkoaren aurrean hartutako erabakia izan dela, eta bestetik, nekea aipatu du. Eta bai, ikusten zaio. Aitona eginda dago, eta zortzi urtean Elizaren kezka guztiei erantzuteak ahuldu egiten du pertsona. Hori dena kontuan hartuta, nik uste dut zentzuzko erabakia hartu duela.

Nola baloratzen duzu bere agintaldia?

Positiboki. Nik uste dut lan handia egin duela zortzi urtean, eta batua mantendu duela Eliza. Eta azken batean hori da garrantzitsuena. Aita santua Elizari eta munduari laguntzeko dago hor, eta bete du bere egitekoa.

Zer diozu egin dizkieten kritikez?

Sekula ez dagoela denen gustua egiterik.

Eliza Katolikoaren egituraren kontra agertu dira asko, hierarkia horren kontra.

Nik ere entzun ditut. Urte askoan mantendu da egitura hori, eta hori aldatu egin beharko litzatekeela? Ez dakit. Iruditzen zait ez dela hori arazo handiena. Hori denborarekin joango da galtzen. Diru asko mugitzen dela? Niri iruditzen zait aita santuek ez dutela dirurik mane-jatzen. Joan Paulo II.ak ere hiru gauza bakarrik zituen bereak hil zenean; beste guztia hor utzi zuen, eta Benedikto XVI.ak besteek utzitakoa topatuko zuen iritsi zenean, eta horixe utziko dio hurrengoari ere. Vatikanoa zoragarria da, bai, eta askok esango dute munduan horrenbeste pobre egonda zergatik den Eliza horren aberatsa, baina zuk uste duzu hori guztia salduta pobrezia amaituko litzatekeela munduan? Kristautasunaren historia osoa dago han. Eta, gainera, nork salduko du hori, inorena ez bada? Hori gizateriaren ondarea da, denona, eta han daude kristautasunaren sustraiak. Kontua da jendeari hitz egitea gus-tatzen zaiola. Zergatik dago horrenbeste po-

bre munduan? Bada, gu geu ez garelako justuak. Denok jarraituko bagenu Jesusen eredu-a, mundua justuagoa litzateke. Norbanakotik hasi behar dugu mundu hobea egiten. Eta nik, eliztarra naizen aldetik, eredu-a eman behar dut eta etsenpluaren bidez predikatu.

Aita santua ikusten izan zinen Madrilan bi alabekin. Zerekin gelditu zinen?

Ikaragarriko esperientzia izan zen. Peregrinazioan joan ginen Bilbotik, autobusez. Aita santua ikustera joan ginen, eta eguraldi oso txarra egin bazigun ere, sekulakoa izan zen. Bizi egin behar zen hura. Gazte guzti haiek, isiltasun hura... eta ekaitzaren erdian, aita santua ere hantxe, gurekin.

“Lan handia egin du zortzi urtean, eta batua mantendu du Eliza”

Gehiegizkoa izan zela diotenak ere badira.

Bai, baina presidente batek ere zaintzen du bere segurtasuna. Nola ez du zainduko aita santu batek? Ez dut nahi horretan sartu, gainera. Aita santuaren eukaristia hartan parte hartzera joan ginen, eta Jesukristoren mezua zabaltzera gonbidatu gintuen berak. Jesukristoren maitasun hori gure inguruan zabaltzera, horixe delako betiko salbamena.

Modu berezian bizi duzu fedea. Zer ematen dizu zuri Elizak?

Indarra. Nire bizitzari zentzua ematen dio Jesukristok. Datorren hilean beteko da urtebete gizona hil zitzaidala, eta badakit leku onean dagoela, baina Jesukristoren maitasun horrek ematen dit niri egunero jaikitzeko

indarra, senarrak utzitako hutsunea handia delako.

Zer sentitzen duzu elizak husten ari direla ikusten duzunean?

Zer pentsatu behar dut, Jesukristok porrot egin duela? Bada, ez. Gure ama ere beldurtu egiten da elizan jende gutxi ikusten duenean, baina ez, ez gara ikaratu behar. Eliza galbahe bat da, ez daukagu denok egon beharrik, baina hor gelditzen garenon ardura da Jesusen hitza etsenplua emanez predikatzea.

Komunikabideetan hasi dira aita santu izan daitezkeen zerrendak ematen. Zein nahiko zenuke zuk izatea?

Ez nau kezkatzen horrek. Lasai nago. Eliza alde batera lagata, munduan ez dago 2.000 urte egin dituen beste erakunderik, eta hori zeinek egiten du? Gizakiok? Ez. Guk ez daukagu halako erakunde bati eusteko indarrak. Hori Jaungoikoak egiten du, eta horregatik lasai nago. Nik nahiko nukeena da ebanjelioa bere esentzian gordetzea hurrengo aita santuak. Etxe batean gurasoek duten ardura du aita santuak Elizan. Eliza batua mantendu behar du berak, egia delako gu oso emanak garela bekatura, inguruan tentazioak baino ez ditugulako.

Hartu duen dimentsioarekin Eliza ebanjeliotik urruntzen ari dela diote zenbaitzuk. Zer diozu zuk?

Egia da Jesukristoren ebanjelioa zabaltzea dela Elizak egin behar duen bakarra eta diru asunto horiek-eta beste batzuei tokatzen zaiela egitea. Baina gertatzen dena da Eliza pertsonok osatzen dugula. Elizan badaude la handinahia dutenak? Bai, jakina, denok garelako bekataria. Jaungoikoak, baina, badaki nolakoak garen, eta egunero erakusten digu bidea, eta egunero laguntzen digu jaikitzen, erortzen garenean. Santutasunean bizitzea eskatzen digu.

● ENRIKE LARRAÑAGA (Eibar, 1931)

Apaiz izandakoa da, baina gaur egun ezkondua dago eta familia osatua dute. Eliztar arduratsua dela dio, eta Eliza Katolikoaren egungo egituraren baino gehiago Nazaretoko Jesusengan daukala berak fedea.

Aita santu kargua lagako duela iragarri du Benedikto XVI.ak. Nola hartu duzu?

Lehendakari batek kargua lagatzen duenean beste edozein giza erakundek bezala.

Batzuek urrun eta besteek gertu sentitu dute. Mario Izeta Bilboko gotzainak esan du, esaterako, sufrimendu askoko urteak izan direla, baina Benedikto XVI.ak ondo jakin duela arazoak kudeatzen. Elizaren bueltako beste hainbatek, aldiz, egin duen onena dimisioa ematea izan dela adierazi dute. Zer duzu esateko?

Pederastia kasuak, ustelkeria... Egia da garai zailak izan direla, bai, eta egia da, era berean, errenuntziaren inguruan era askotako irakurketak daudela eliztarren artean, baina ni Joxe Arregi teologoak esandakoarekin gelditzen naiz (*Noticias de Gipuzkoa*, 2013-2-17). Duina eta legezkoa da 'ez daukat indarririk' eta 'ezin dut gehiago' esatea, eta alde horretatik ausarta ere izan da Benedikto XVI.a mundu horretan hori aitortzen, baina bestetik, kargua lagatze hori ez al da Vatikanon botere-makina ilun horren aurrean errenditzea edo amore ematea? Honela dio Joxe Arregik, artikuluan: "Gizalegezkia da aita santu edadetu eta gaitxo bat klausurako monastegi batera erretiratzeari bere azken urteak bakean igarotzeko, dela otoitzean, irakurtzen, musika entzuten edo pianoa jotzen. Baina, aldi berean, ez al da utzikeria aitasantutzak Elizari eta historiari utzi dizkion kontu astunak kitatu aurretik amore ematea?"

Pedro Casaldaliga Askapenaren Teologiaren aldeko gotzainak zioen aita santuak uko egin beharko liokela estatuburu izateari. Zer nolako egitura eta zer nolako aita santua beharko litzuke Elizak, zure ustez?

Erdi Aroko sistema hau aldatu beharra dago, bai. Joxe Arregirekin bat nator kontu honetan ere. Berak dio aitasantutzaren eredu monarkiko hau Nazaretoko Jesusen aldarrikatzen duenaren guztiz kontrakoa dela, eta hala da. Ebanjelioan esaten dena beste gauza bat da. [Arregiren testuko beste paragrafo bat irakurri du. Honela dio: "Non gelditu dira Jesusen hitzak? Non, Galileako profeta aske, errukior eta baztertuen laguna den Jesusen hitzak? 'Ez

inori santu deitu, ez inori aita esan, eta ezta jauna ere. Zuek guztiok anaiak zarete"'].
Elizak berri beharra duela diozu, baina aukerarik ikusten duzu horretarako?

Bai, baina denok egin behar dugu lan horretarako. Eliztar eta pertsona bakoitzak bere ibilbide edo prozesu pertsonala egin behar du zoriotsu izateko, eta horretarako, badaude bideak. Horien gaineko informazioa behar badu norbaitek, ni prest nago emateko.

“Erdi Aroko sistema hori aldatu ezean ez dut uste aldaketa handirik etorriko denik”

Eliztar askok, Eliza 2000 Herriakoez, esaterako, Eliza Katolikoak ate guztiak zabaldu eta Joan XXIII.ak hasitako II. Kontzilioan jasotakoak gogorarazi beharko litzukeela aldarrikatu dute. Bat egiten duzu? Zer aldatuko zenuke?

Bai, gauza askotan arrazoa dute. Nazaretoko Jesusengan konfiantza osoa daukat nik, eta indar handia ematen dit. Hori da Elizak eman didan onena. Nor naiz ni? Zertarako nago lur honetan urte batzuetarako? Nola izango naiz zoriotsu? Zer dago heriotza eta gero? Bizitzako galdera sakonei erantzuten lagundu dit Jesusen. Duela 2.000 urte Palestinan bizi izan zen Jesus horrek ez ditu erantzun mitikoak, filosofikoak edo zientifikoak ematen. Bizitzaren eta errealitatearen misterioen aurrean bizi-erantzunak ematen ditu Jesusen.

Elizako lehenengo burua San Pedro izan zen, eta azkena, 265.a: Benedikto XVI.a. Galdera honakoa da: Zer litzateke Elizaren 266. buruzagitzat Eliza bera sortu zuena [Nazaretoko Jesus] aukeratuko balute? Ziurrenik gauza asko aldatuko litzuke. Hasteko, Elizaren egitura astun hori ezeztatuko luke, eta apalagoa egin.

Eragiten du aita santuak parrokiako egunerokoa?

Epe motzean, ez. Nik nire 82 urte hauetan



zazpi aita santu ezagutu ditut, eta birritan igarri dut nolabaiteko aldaketa: Joan XXIII.aren sasoiaren eta Paulo VI.aren agintaldian. Batak, Vatikanon II. Kontzilioa bultzatu zuen, eta bestea, Paulo VI.a, Kontzilio horretan jasotakoa praktikan jartzen hasi zen [Eliza Katolikoa eguneratzeko asmoz 1962tik 65era Vatikanon Hirian egin zituzten batzarrei esaten zaio Vatikanon II. Kontzilioa].

Zu ere Eliza zara. Zer esango zenieke Eliza gero eta umutiago sentitzen dutenei?

Sakoneko 'ni'-a bila dezatela. Saia daitezela euren barruari, euren bihotzari, euren kontzientziari jarraitzen eta ahalegin horretan Nazaretoko Jesus laguntzaile bikaina izango dutela. Eta bildu daitezela hori egiteko prest dauden beste pertsona batzuekin, bakarrik egitea oso zaila delako. Sakoneko 'ni'-ra zenbat eta gehiago hurbildu, zoriotsuago izango dira. Hori da bidea: gu zoriotsu bagara asmatuko dugu besteak zoriotsu egiten. Norbanakotik hasita egingo dugu mundu hau orekatuagoa, justuagoa eta zoriotsuagoa. Nik eskerrak ematen dizkiot Elizari, bere bitartez ezagutu dudalako zoriontasun bidean jarri nauen Nazaretoko Jesus. Gutako bakoitza Jesusen antzera bizitzen ahaleginduko balitz lortuko genuke benetako iraultza, eta bukatuko liriteke krisiak eta bai giza eskubideak eta bai herri eskubideak errespetatuak izango liriteke.

Kinielak egiten hasi dira asko. Zein iruditzen zaizu izango dela hurrengo aita santua? Zein nahiko zenuke izatea?

Erdi Aroko sistema hori aldatzen ez den bitartean ez dut aldaketarik ikusten. Horregatik komeni da Vatikanon aldatzeko indarra daukan norbait izendatzea aita santu. Ondo esandakoak onartu eta gaizki esandakoak barkatu.



Pista Beltza itxi egingo dute? Pista Beltzeko sarreran semaforo bat jarri dute, eta herritar batek jakin nahi du gune hori itxi egingo duten. Hirigintza Sailera jo du BARRENEK, eta arduradunak esandakoaren arabera, Pista Beltza aisialdi gune bihurtuko dute. Oinezkoentzako gunea izango da. Hortaz, garajeetara eta Pista Beltzeko lokaletara bakarrik sartu ahal izango dira autoak. Aurrerantzean, beraz, ezingo da Pista Beltzean aparkatu.



Elgoibar Ikastolak eskerrak eman dizkie Regina Arrietari eta Mari Karmen Arizagari: “Txalo bero bat Regina Arrieta eta Mari Karmen Arizagari. Zuei esker, aurren ere Ikastolak makina bat txapel berritza lortu du. Eskerrik asko Ikastola guztiaren partez”.



Kilimoi erreka inguruko pasealekua konpondu dute: “Euri asko egiten zuen egunetan urak hartzen zuen Kilimoi pasealekua. Hustubide batzuk zuzenean pasealekura bideratzen zuten ura, eta gainezka egiten zuen. Arazoa konpondu dute, eta ardura-dunei eskerrak eman nahi dizkiet”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com 943 744 112



JARRI EZAZU PUBLIZITATEA

www.elgoiBARREN.net
web atarian

Zure enpresa edo
negozioa klik batean!

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net

 ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

JUANAN MARTIN

(Oxford, Britania Handia)

“Lanerako gogoa duenak erraz aurkitu dezake lana hemen”



Ingelesa ikastera joan zen Juanan Martin Oxford-era (Britania Handia), iazko irailean. Administraritzak ikasketak ditu, eta badaki alor horretan lan egiteko ingelesa ezinbestekoa duela. Baina hizkuntza ikasi eta praktikatzeaz gain, futboleko jokatzeko duen Martinek Oxford City taldean. CD Elgoibarko jokalaria izan da oraintsu arte Juanan Martin. Iaz Oxford-eko taldearen kontra jokatu zuten txapelketa Mintxetan, eta Oxford FC klubeko zuzendaritzakoekin hitz egiteko aprobeztatu zuen une hura. Iritsi eta berehala hasi zen futboleko jokatzeko, baina horrekin ez zen han bizitzeko nahikoa, eta Zoologia Unibertsitateko sukaldetan ere egiten du lan. Neskalagunarekin joan da Oxford-era, eta zoriontsu direla dio.

Nola iritsi zara CD Elgoibarko harrobiko jokalaria izateko Oxforden jokatzera?

C.D. Elgoibarrek iaz antolatutako txapelketan, Oxford taldeko zuzendaritzakoekin jarri nintzen harremanetan, eta hango taldean jokatzeko aukera eskaini zidaten. Uztailean astebeterako joan nintzen beraiekin entrenatzera eta nahi nuenean jokatzeko hasteko aukera nuela esan zidaten. Iraila amaieran joan nintzen hara, eta bi asteren barruan hasi nintzen jokatzeko. Talde asko daude hemen, eta mailak ere Espainiako Ligan baino gehiago dira. Bosgarren mailan dago nire taldea (Espainiako hirugarren mailaren parekoa), baina dirua irabazten dut.

Igarri duzu alderik hemengo futbol sistematik horkora?

Alde nabarmena dago. Partidak askoz azkarragoak dira, baloia berehala iristen da porteria batetik bestera, epaileak ez du jokoa apenas gelditzen, falta gutxi pitatzen dira partidan zehar eta atezaina ez dago batera babestuta. Partidan zehar, asko jota hamar falta pitatzen dira, nahiz eta sarrera bortitzak egon. Txartel hori gutxi ateratzen dituzte epaileak, eta gorrak bat bera ere ez. Etxeko taldeak jateko zerbaitekin prestatzen du partida osterako, eta bi taldeetako kideek elkarrekin jaten dute, eta epaileak ere egoten dira, partida komentatzen. Horrek harritu egin ninduen.

Espainiako Ligan jokatzeko dute gure taldeak, izen handiko jokalarien ligan. Hor nola hartu zaituzte?

Besoak zabalik hartu naute. Lana eta etxea aurkitzeko erraztasunak izan ditut, entrenatzaile izateko ikasketak ordaindu dizkirate, entrenatzeko eta partidetara joateko jantziak eman dizkirate, eta gainera, futboleko jokatzeko gaitik

ordaindu egiten didate. Familiakoa banintz bezala hartu naute. Taldean asko estimatzen naute, eta atezaina izateko baloiarekin abilezia handia dudala esan didate. Oso pozik daude beraien taldean atezain euskalduna dutelako. Aldagelara sartzean beti besarkatzen naute, eta entrenamenduak bukatzen ditugunean etxera eramaten naute.

Jarraitzen dute Espainiako Liga? Eta euskal taldeak?

Espainiako Ligari dagokionean, Bartzelona eta Real Madril taldeak dira hemen ezagunenak. Euskal taldeen artean Athletic ezagutzen dute gehien. Zuri-gorriek iaz Manchester United taldearen kontra jokatuako partida hura gogoan dute askok.

Oxford Cityren aurtingo erronka edo helburuak zeintzuk dira.

Ligaz aparte, beste hiru txapelketatan jokatzen dugu, eta horietako bat gutxienez irabaztea da gure helburuetako bat. Momentu honetan sei garren postuan gaude hogeitaldoko liga txapelketan, baina hemen oso zaila da mailaz igotzea. Gure ligan jokatzen duten talde batzuek diru asko daukate, eta jokalar oso onak dituzte. Oso zaila da horiekin lehiatzea.

Etorrizun labor batean non ikusten duzu zure burua?

Momentuz, beste denboraldi bat jokatzeko proposamena egin didate hemen, eta jarraitzeko asmoa daukat. Nire ingeles maila hobetzeko oso ondo etorriko zait. Ondoren, lanaren arabera antolatutako dut nire egonaldia. Lanpostu ona lortzen badut, Ingalaterrako egonaldia luzeagoa izango da.

Jarraitzaile britaniarrak goratzen dira sarri, futbola beste modu batera sentitzen dutelako. Nola bizi duzu hori?

Jarraitzaile fanatikoak edonon aurki daitezke. Garagardo asko edaten dute hemen, garrasi handiak egiten dituzte, eta partida osoa kantuan pasatzen dute. Kontrako jokalar batekin kalte egiten didanean gaztelaniaz hitz egiten diet esaten dudana ez dezaten ulertu, eta ez zaie batere gustatzen.

Oxford entzunda unibertsitatea datorkigu burura. Nabari da unibertsitate giroa?

Bai, asko. Unibertsitate hiri bat izatean, egunerok aurkitu dezakezu parranda giroa kalean. Astelehenak eta ostegunak izaten dira

egun unibertsitateko ikasleen artean estimatuenak. Asteburuetan jende asko etxera bueltatzen da, eta astelehenetan itzultzen dira Oxford-era ikastera. Dena dela, jatorri askotako ikasleak daude hemen eta asteburuetan ere parranda giroa edonon aurkitu daiteke. Goizaldeko hirurak arte egoten dira tabernak zabalik, eta ondoren, etxeetan jarraitzen da parranda, goizaldera arte.

“Hiriak duen xarma gustatzen zait gehien”

Askotan esaten da herrialde horietan gazteentzako laguntzak handiagoak direla hemen baino. Zer esan dezakezu honi buruz?

Egia esan, iritsi ginen momentuan lana aurkitu genuen, hortaz, ez degu laguntzarik eskatu. Hemen, lanerako gogoia duenak erraz aurkitu dezake lana. Ingelesa ikasteko aukera handiak daude, eta ingeles klaseak doan jasotzeko aukera ere badago. Bestalde, astean hogeitortu baino gutxiago lan eginez gero, Gobernuak ez dizkizu tasak kobratzen, eta lanik gabe daudenentzako diru laguntzak daude.

Horrenbeste unibertsitarioren artean, zuek

ere egingo duzue parrandaren bat, ezta?

Gehienbat espainiar jatorriko jendearekin ibiltzen gara. Flamenko talde batekin harreman handia dugu. Hauek ostegunero kontzertu bat egiten dute hiriko taberna batean, eta hau bukatzean, lagun baten etxean jarraitzen dugu flamenko jaia. Oso momentu onak pasatzen ditugu.

Zer da Oxfordetik gehien gustatzen zaizuna? Zer erakutsiko zenioke lagun bati?

Hiriak duen xarma gustatzen zait gehien. Eraikinen estruktura, lorategiak, jendearekin harremanak, futbola bizitzeko era, tabernetako giroa... Oro har, kultura desberdin batean murgiltzea dut gustuko. Unibertsitateko liburutegia ere oso interesgarria da, Harry Potter filma grabatu zen Church College eskola ere bai, eta Oxford unibertsitateko arraun taldeak entrenatzen duen ibai zabala ere polita da. Gaztelua edota diploma banaketa egiten duten museoa ere interesgarriak dira. Hemengo ohiko tabernetara ere joango nintzateke lagunarekin, garagardo on bat edatera. Egun osoa garagardo desberdinak dastatzen pasatzeko aukera dago hemen.

Zeren falta igartzen duzu hor?

Familia eta benetako lagunak. Jatekoa ere ez da Euskal Herrikoa bezalakoa. Ez da gaizki jaten, baina espezie eta pikante asko erabiltzen dute. Hori gutzia kiloko txuleta on bategatik aldatuko nuke. Eguzki izpi goxoak ere asko botatzen dira faltan, eguzkia ateratzen da noizean behin, baina ez du batere berotzen.

Ainhoa Andonegi



Erretratu zaharra



1947

Aste honetako erretratu zaharra Mari Tere Alberdik ekarri du BARRRENEKO bulegora. 1947ko sanbartolomeetan ateratako erretratua da. Garai hartan Barrutia hotela zegoen Elgoibarren, gaur egungo taxi geltokiaren aldamenean, eta hantxe ateratako argazkia da. Hotela oso ezaguna zen herrian eta jende askok hartzen zuen ostatu. Argazkian agertzen diren bi emakume hauek Juani Barrutia (†) eta Mari Cruz Alberdi dira.



ESKERTZA

CONCEPCION ZABALO ARIZTIMUÑO

2013ko otsailaren 2an hil zen, 94 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

JOSEFA GARATE ARRILLAGA

2013ko otsailaren 8an hil zen, 92 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Gatzatu tailerra egingo dute bihar, hileko azken zapatuko ferian

Taupadak hartuko du feriako txosna

Neguko geldiuonearen ostean, bihar ekingo diote berriz ere azken zapatuko feriarri. 9:00etatik aurrera, Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai Kalebarren plazan, eta eguerditik aurrera, ganadu erakusketa egingo dute Aita Agirre plazan. Horrez gain, gatzatu tailerra antolatu dute Udalak eta Debemenek, Elgoibarko Izarrarekin batera. Mintxeta baserriko ardi esnea erabiliko dute eta errezeta etxera eramateko aukera izango dute partaideek. Horrez gain, esnea nola eta zein sasoiatan lortzen den azalduko zaie, eta ardiak nola jezten diren ikusi ahal izango dute.

Txosna, Taupadak

Taupada antzerki taldeak hartuko du oraingoan feriako txosna, eta 11:00etatik aurrera haragi gisatu pintxoak eta salda banatuko dituzte. 12:00etan Kale Kantariak irtengo dira.

Atxutxiamaikaren udaberriko oporretako ekintzetarako izenematea, astelehenetik aurrera

Udaberriko oporretarako hainbat ekintza antolatu ditu Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaiak aisialdi taldeak. Astelehenean zabalduko dute izena emateko epea, eta martxoaren 8an amaituko da. Martxoaren 26an Pasaiara joango dira egunpasa, LH3tik LH6ra arteko umeekin, eta apirilaren 2tik 5era, Zarautzen egingo dute egonaldia. Azkenik, udaberriko txokoak prestatu dituzte 2tik 8 urtera arteko umeentzako. Martxoaren 25ean, 26an eta 27an eta apirilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean izango dira, goizez. Informazio gehiagorako 943 741 626 zenbakira deitu daiteke.

Elgoibarko ikasleak Andoaingo piano jaialdian



895 lagunek hartuko dute parte asteburu honetan Andoaingo piano jaialdian, eta horien artean, Inazio Bereziartua musika eskolako 53 ikasle arituko dira. Ikasle gazteenak 8 urte ditu eta zaharrenak, 15. Pianoko hiru irakasleekin joango dira Andoainera: Susana Marcano, Ana Arriola eta Tere Laspiur.

Bihar hasiko dira Aingeru Guardako jaiak Mendaron

Bihar hasiko dira Aingeru Guardako jaiak. Eguerdiko 12:30ean joko dituzte kanpaiak Aingeru Guardan, eta ondoren, zuhaitza jarriko dute. Martxoaren 1ean bi meza egongo dira 8:00etan eta 11:00etan, eta hurrengo asteburuan kirola izango da nagusi. Martxoaren 2an Arnateko Igoera egingo dute Plaza auzotik, eta hilaren 3an herri kirolak egingo dituzte, bertsolari eta trikitilariekin. 14:30ean bazkaria egingo dute Aizpe elkartearen, Andoni Egaña eta Sebastian Lizasorekin. Bazkariaren prezioa 25 eurokoa da, eta Txirristaka eta Ormola tabernetan eman daiteke izena.

Bluestock taldearen kontzertua gaur, 23:00etan

Bluestock taldeak kontzertua eskainiko du gaur, Sinuosek antolatuta. Aitor Badiola elgoibartarraren musika proiektu berria da Bluestock, eta taldearen izenak berak aditzera ematen duen bezala, blues doinuak izango dira nagusi. 23:00etan izango da kontzertua Kultur Etxeko sotoan, eta sarrerak hiru euro balio ditu.

Xabier Isastiren erakusketa Eibarren

Xabier Isasti elgoibartarraren artelanak ikusteko aukera egongo da Eibarren, Untzagako jubilatuen etxean, martxoaren 1etik 15era bitartean. Akuarelak, grabatuak eta egurrean eginiko artelanak jarriko ditu ikusgai, besteak beste. Astelehenetik barixakura 19:15etik eta 21:15era eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara.

Barrikotea martxoaren 2an

Kimetz elkartearen sagardotegi bihurtuko dute martxoaren 2an. 20 euroan jarri dituzte txartelak salgai Iturri eta Jai Alai tabernetan. 21:00etan izango da afaria.



Goiti kooperatibak 50 urte egin zituen 2012an, eta urte amaieran egin zuten urteurreneko ospakizuna. “Modu xumean” ospatu zuten urteurrena. Egungo langileak eta sorrerako zenbait bazkide batu ziren enpresan bertan, eta ondoren bazkaria egin zuten. Goitiren iragana eta oraina batu ditugu erreportaje honetan. Sabin Osoro, Jose Gurrutxaga, Jose Elizondo eta Sabin Argaratek enpresaren sorrerari buruz hitz egin dute, eta Luis Carlos Alvarez de Arcaya Goitiko lehendakaria egungo eta etorkizuneko egoeraz mintzatu da.

Ainhoa Andonegi

1 960. urtearen bueltan hasi zituzten Goiti sortzeko bilerak. Sabin Osoro Danobaten zebilen lanean garai hartan, eta herritar batzuk aholkularitza eskatu zioten enpresa berri bat sortzeko. Ongarri kultura elkarteak Maalan zeukan lokalean egin zituzten estreinako bilera haietan, Joakin Oria, Joakin Perea, Ermenegildo Perez eta Sabin Osoro bera batzen ziren. “Hirurak arotzak ziren, eta aroztegi bat martxan jartzeko laguntza eskatu zidaten”, gogoratu du Sabinekin. Baina aroztegia baino gehiago, enpresa zabala goa egin behar zela uste zuen Sabinekin, eta aroztegiak gain, enpresa hark tailer mekanikoa ere eduki behar zuela esan zion. “Bi sektore elkartze horretan duda handiak izan nituen, baina ni tailer mekaniko zalea nintzen eta huraxe izan zen nire gomendioa”. Batekin eta bestearekin egin zituen bilerak Sabin Osorok, eta horietako batzar bat Arrasaten egin zuen, Jose Maria Arizmendiarieta apaizarekin. Hark eman zion hasiera kooperatibismoari Debagoienan, eta enpresa munduan izen handia zeukan. Jose Maria Arizmendiarietak aholku bat eman zion Sabini: aroztegia eta tailer mekanikoa enpresa txiki baten ez ba-

tzeko esan zion, sektore batek besteari kalte egingo liokeela. Ez zen gustura geratu Sabin hori entzun zuenean, eta bigarren iritzi bat eskatu zuen. Alfonso Gorroñagoitia Euskadiko Kutxako lehendakariarekin batu zen, eta hark esandakoa hartu zuen Sabinekin gogoan, hau da, bi sektoreak ondo joanez gero, enpresa aurrera irtengo zela. Hori entzutean bere hasierako ideari eustea erabaki zuen. Sabin Osoro izan zen bazkide sortzaileetako bat, baina berak Danobaten jarraitu zuen lanean, erretiroa hartu zuen arte. Jose Gurrutxagak ere hartu zuen parte hasierako batzarretan, baina Goiti sortzear zegoen garaian, lanik gabe zegoen Gurrutxaga. Eibarko Tresnak enpresatik deitu zioten mutil gazte bat behar zutela esanez, eta unea aprobetxatzea erabaki zuen. Ez zen Goiti sortzeko zain egon lanerako, baina hasieratik izan zen bazkide.

San Frantzisko kalean izan zuen egoitza Goitik hasierako urteetan. Beheko solairuan tailer mekanikoa eta gainean aroztegia. 1961eko azaroan hasi ziren lanean estreinako langileak, eta tartean Jose Elizondo. Lehenengo hiru langileetako bat izan zen bera. Aroz-



LUIS CARLOS ALVAREZ DE ARCAJA Goitiko lehendakaria

“Poliki-poliki krisi egoera gainditzen hasi garela esango nuke”

Zenbat langile ditu Goitik gaur egun?

50 langile inguru gara Goitin. Iaz pare bat bazkide berri sartu ziren, eta aurten ere sartuko da besteren bat. Langile erreleboa egin behar da.

Zein da Goitiren zeregin nagusia?

DanobatGroup taldearen barruan linea desberdinak daude. Gure zeregina txapa deformatzea da. Danabatek txirbil arroketa egiten du lan, eta guk deformazioan. Gure makina nagusia puntzonadora da. Paneladora ere badugu, puntzonadoratik irteten diren piezak tolesteko, eta iaz laserra indartzen hasi ginen. 87an hasi ginen laserra erabiltzen, eta ebaketa alorrean laserra erabiltzen hasi ginen lehenengoak izan ginen Espainian.

Nora saltzen du Goitik?

Gure produkzioaren erdia gutxi gorabehera Espainian saltzen genuen, eta gainerakoa esportatu egiten genuen. Momentuz gure merkatua Espainia da batez ere, eta krisiaren eraginez merkatu horretan jaitsiera handia igarri dugu. Atzerriko salmenta kopurua mantendu egin dugu, gutxi gorabehera, baina esportazio kopurua handitzea da gure nahia. Iaz Txinara saltzen hasi ginen, eta Australiara ere bidali ditugu pare bat makina.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Une gogorrena pasatu dugula uste dut, eta poliki-poliki krisi egoera gainditzen hasi garela esango nuke. Iazko lehen sehilakoa oso txarra izan zen, baina urtearen bigarren zatian hobekuntza nabaritu genuen, eta urtea uste genuena baino hobeto bukatu genuen. 2013a hobe datorrela dirudi.

Goiti kooperatiba da sortu zenetik. Zein abantaila eta desabantaila

ikusten dizkiozu kooperatibismoari?

Enpresa bat sortzeko modurik egokiena da nire ustez kooperatibismoa. Azken batean, langileak enpresako partaide dira eta bakoitzak bere buruarentzat egiten du lan. Eta hori, une zailtan igartzen da, bereziki. Langileei ahalegin berezia eskatzen zaienean, denek erantzuten dute. Eta enpresa ondo badabil, irabaziak denontzat dira. Langileak enpresan inplikatzeko eta une zailak gainditzeko sistemarik onena da. Iaz lan gutxi izan genuenean langileak etxera bidali behar izan genituen, baina gero lana etorri zenean, asteburuetan ere lanean jardun zuten, inolako arazorik gabe. Gainera, DanobatGroup taldeko kide gara, eta horrek ere laguntzen du. Gu enpresa txikia gara eta atzerrian saltzea askoz errazagoa da taldeko kide izanda. Gainera, enpresa batek lanik ez badu, eta besteak bai, langileak kokatzeko aukera gehiago dago.



tegian egiten zuen lan berak. Sabin Argarate 1968. urte inguruan heldu zen Goitira, eta administrazioan hasi zen lanean.

1970. urte inguruan Manolo Rementeria eta Sabin Osoro lursail berrien bila hasi ziren, eta Arriaga auzoan aurkitu zuten gunerik aproposena. Danabatek hartu zuen zatirik handiena (ordura arte Azkoitiko errepede zaharrean zegoen Danobat), eta apur bat beherago kokatu zuten Goiti, gaur egun dagoen leku berean. Denborak Jose Maria Arizmendiari eman zion arrazoia, eta Goiti bitan banatu zen: Olarri enpresak hartu zuen aroztegia, eta Goiti tailer mekanikoarekin geratu zen.

Hasieratik kooperatiba

Kooperatibismoa Debagoienean sortu zuten, eta Jose Maria Arizmendiari eman zion izazera juridiko horren bultzatzaile nagusia, 50eko hamarkadaren erdialdean. Hango eredu jarraitu zuten hemen Goiti sortzerakoan. Ez zuten dudarik izan, eta hasiera-hasieratik kooperatiba egitura eman zioten Goitiri. Elgoibarko lehe-

nengo kooperatiba izan zen. Danobat aurretik sortuta zegoen arren, beranduago hartu zuen kooperatiba izaera. “1954an sortu genuen Danobat, baina hamabi urtean nire izenean egon zen enpresa”, azaldu du Osorok. 1966an ordura arteko langile guztiak egin ziren bazkide, bakoitzak 30.000 pezeta jarrita. Goitiren sorreran 25.000 pezeta jarri zituen bazkide bakoitzak. Kooperatibismoak alde onak eta txarrak ditu, baina Sabin Osororen iritziz, sistemarik egokiena da. “Gaur egun Hego Amerikatik ere etortzen dira Arrasatera kooperatibismoa ezagutzera, eta eredu hau gero eta indar gehiago hartzen ari da”.

50 urte pasatu dira, eta urteurreneko ekitaldian Goiti bisitatzeko aukera izan zuten berriz ere Sabin Osorok, Sabin Argaratek, Jose Gurrutxagak eta Jose Elizondok. Txundituta geratu ziren gaur egungo tailerarekin, eta denek esan dute aho batez teknologiari esker gauzak asko aldatu direla. Tailerra berrituta, garbi eta dotore aurkitu dute, baina erretiroa hartuta gustura bizi direla adierazi dute.

Euskal Herriko banakako eta erlojupeko Mendi Eskiko Txapelketa irabazi du Iñigo Larizek

Eñaut Izagirrek brontzezko domina eskuratu du, promesetan

Antxon Bandresen oroimenezko proba jokatu dute asteburuan Izaban, Euskal Herriko Mendi Eskiko Txapelketa. Bi egunetan, banakako mendi eskiko proba eta erlojupekoa jokatu dituzte, eta bietan, Iñigo Lariz elgoibartarrak jantzi du txapela.

Zapatuan jokatu zuten bakarkako proba, Belagua eta Zuriza arteko Txamantxoia mendian. Eskiatzaileek birritan igo behar izan zuten Txamantxoia, eta Wilfrid Jumere eskiatzaile frantziarra izan zen denetan azkarrena. Jumereren atzetik sartu zen Lariz, eta Javier Tirapu nafarra sailkatu zen hirugarren. Gogotik saiatu arren, elgoibartarrak ezin izan zion frantziarrari aurre hartu, baina, hala ere, iaz irabazitako tituluari eusteko balio izan zion bigarren postuak.

Erlojupekoa domekan jokatu zuten, Izabatik Ardibidepikua izeneko tontorrerako igoeran, eta modalitate horretan ondo baino hobeto moldatzen dela erakutsi zuen Larizek. Bigarren urtez jarraian, bera



Arg.: Iosu Juaristi

izan zen azkarrena, Haritz Egea urretxuarra eta Mikel Navarro arrasatearraren aurretik [Altitoy proban Larizen bikotekidea izan zen Navarro]. Eñaut Izagirre elgoibartarrak, berriz, brontzezko domina lortu zuen proba batean zein bestean, promesa kategorian.

Maite Maiora mendarorak ere parte

hartu zuen asteburuan Izaban jokatutako txapelketan. Lehen egunean min hartu zuen sorbaldan, helmugara ailegatzeko 100 metroren faltan. Hala eta guztiz, sorbaldan luxazioa izan arren, domekako erlojupekoa egitea erabaki zuen. Eta primeran moldatu zen, gainera, hirugarren postua lortu zuen-eta emakumezkoetan.

Arkaitz Egañak irabazi du Elgoibarko Ehiza Xehe Txapelketa



Joan zen asteburuan jokatu zuten Zambranen (Araba) La Union elkarteak antolatutako ehiza xehe txapelketa, eta Arkaitz Egañak irabazi zuen, zazpi eper botata. David Condek egin zuen bigarren, bost eper eta faisán batekin; eta hirugarren sailkatua Luis Garcia izan zen, bost eperrekin. Hiru horiek Gipuzkoako txapelketan hartuko dute parte, irailean.

Martxoaren 1ean amaituko da Xake Txapelketan izena emateko epea

Xake txapelketa antolatu du Mekatar taldeak eta parte hartu nahi dutenek martxoaren 1erako eman beharko dute izena. Martxotik ekainera bitartean jokatuko dituzte partidak Iriondo tabernan, eta edozein herritarrek izango du parte hartzeko aukera. Izena ematen duen jende kopuruaren arabera osatuko dituzte taldeak, eta ligilla eran jokatuko dira partidak. Izena emateko ondorengo aukerak daude: fidididomik@hotmail.com helbidera idatzi edo 630 731 132 telefono zenbakira deitu.

60 urtetik gorakoentzako kirol programa jarriko dute martxan

Martxoaren 19an egingo dute lehen saioa Mintxetan

Adinekoen artean kirola egiteko ohitura sustatzeko asmoz, 60 urtetik gorakoentzako kirol programa jarriko du martxan Kirol Patronatuak martxoaren 19tik aurrera, Ongizate Sailarekin eta Osakidetzarekin elkarlanean. Elgoibarren jarduera fisikorako gune urbano eta naturalak badaudela erakustez gain, erraztasunak emango dizkiete kirol instalazioak eta aisialdi guneak erabiltzeko.

Programa hau doakoa da, eta bertan, osasuna eta bizi-kalitatea hobetu nahi dituzten 60 urtetik gorako pertsona guztiak parte hartu ahal izango dute.

Martxoaren 19an erakustaldi bat egingo dute Mintxetako aparkalekuko gimnasia aparatuetan, 10:00etatik 11:00etara. Apirilaren 16an ibilaldia egingo dute Mintxeta-Sallobente inguruetan eta apirilaren 23an, bidegorrian zehar.

Parte hartzeko nahikoa izango da martxoaren 19an Mintxetara agertzea.



Debarroko pilota txapelketa hasiko da martitzenean

Lagunak pilota eskolak Debarroko txapelketa antolatu du, eta martitzenean hasiko da, Ikastolako frontoian. Estreinako jardunaldian bi partida jokatuko dituzte: Lagunak eta Euskal Jolas izango dira taldeak, eta kadete eta jubeniletako partidak jokatuko dituzte. 19:00etan hasiko dira norgehiagokak.

Aste Santuan Tena bailarara joateko bidaia antolatu du Morkaiko mendizale elkarteak

Morkaiko mendizale elkarteak Aste Santurako plana egin du: Priniotara joango dira, Tena bailarara, martxoaren 28tik apirilaren 1era. Panticosan hartuko dute ostatua, mantenu erdian. Bazkideek ehun euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 120 euro. Bidaia autoetan egingo dute, eta prezio horretan ostatua eta gasolina sartzen dira. Izena emateko azken eguna martxoaren 11a izango da. Hogei lagunentzako lekua dago. Morkaikoren egoitzan eman daiteke izena astelehenean, edo morkaiko@morkaiko.net helbidera idatzita.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 0 – Lagun Onak 3 (3. maila)
Elgoibar 2 – Lazkao 0 (Erreg.)
Usurbil 0 – Elgoibar 9 (Neskak)
Zarautz 2 – Elgoibar 5 (Jub.)
Elgoibar 3 – Lazkao 0 (Kad. A.)
Tolosa 2 – Elgoibar 1 (Kad. B.)
Elgoibar 2 – Lagun Onak 9 (Ohorezko inf.)
Urki 1 – Elgoibar 0 (Inf. txiki.)

PILOTA

Real Sociedad 22 – Lagunak 10 (1. mailako nag.)
Zumaia 22 – Lagunak 8 (1. mailako nag.)
Zumaia 22 – Lagunak 19 (3. mailako kad.)
Pala
Lagunak 25 – Zarautz 8 (2. mailako nag.)
Lagunak 25 – Ikasberri 14 (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 7 – Rigarr Lito 0 (2B)

ESKUBALOIA

Beti Onak 28 – Alcorta Elg. 21 (Sen. mut.)
Tecnifuelle Elg. 29 – Bera Bera 19 (Sen. nesk.)
Errotaberri 24 – Lauko Elg. 27 (Jub. nesk.)
Beristain Elg. 31 – Hondarribi 21 (Jub. mut.)
Legazpi 28 – Ikus Elg. 14 (Kad. nesk.)
Pneumax Elg. 19 – Pneumax 40 (Kad. mut.)
Murgil Elg. 18 – Urrietako 4 (Inf. nesk.)
Aiala Zarautz 18 – Aterpe Elg. 18 (Inf. nesk.)
Gabaz Elg. 28 – Tolosa 15 (Sen. mut.)
Usurbil 19 – Astigarraga Elg. 18 (Kad. nesk.)
Hondarribi 29 – Txarriduna Elg. 36 (Kad. mut.)
Bankoa Elg. 26 – Usurbil 30 (Inf. mut.)
Aloña Mendi 17 – Cometel Elg. 27 (Inf. nesk.)
Deca Elg. 14 – Pulpo 26 (Inf. nesk.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 23
10:30 Elgoibar – Iintxa (Inf. Txiki)
12:15 Elgoibar – Dunboa (Kad. B.)
16:30 Elgoibar – Segura (Jub.)
Domeka, 24
12:30 Elgoibar – Zumaiko (Neskak)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 23
10:30 Aterpe Elg. – Aloña B (Inf. nesk.)
11:45 Cometel Elg. – Aloña E (Inf. nesk.)
13:00 Txarriduna Elg. – Berezaio Aloña (Kad. mut.)
16:00 Ikus Elg. – Pulpo (Kad. nesk.)
17:30 Lauko Elg. – Zuazo (Jub. nesk.)
19:30 Alcorta Elg. – Romo (Sen. mut.)
Domeka, 24
9:30 Alkideba Elg. – Aloña (Aleb. nesk.)
10:45 Astigarraga Elg. – Zuazo (Kad. nesk.)

PILOTA

Zapatua, 23
11:00 Lagunak – Bergara (3. mailako kad.)
11:30 Lagunak – Hondarribi (2. mailako jub.)

LANA.....

Eskaerak

- Emakumea lan bila.
- ☎ **628 647 809 (Margarita Morales)**
- Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Etxean nahiz tabernan, gauez edo egunez.
- ☎ **689 436 454**
- Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Goizez, jardunaldi erdiz, edo gauez, 22:00etatik aurrera.
- ☎ **632 143 239 / 628 738 472**
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko edo adinekoek konpainia egiteko. Orduetegi malgua. Asteburuetan ere bai.
- ☎ **618 814 064**
- Emakumea eskaintzen da umeak nahiz nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka. ☎ **605 720 298**
- LHko edo DBHko klase partikularak ematea gustatuko litzaidake.
- ☎ **637 010 168**
- Gizonezko gaztea lan bila. Igeltsero, garbitzaile edo zaintzaile lanak egiteko prest.
- ☎ **662 576 146**
- Emakumea lanerako prest. Arratsalde, 15:00etatik 20:00etara. Orduka ere bai.
- ☎ **690 359 554**
- Esperientziadun mutila sukalde laguntzaile lanerako prest.
- ☎ **606 213 945**
- Neska gaztea edozein lan egiteko prest.
- ☎ **628 647 809**

- Emakumea lan bila: esperientzia handia daukat nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan.
- ☎ **690 064 225**
- Mutil gaztea lanerako prest: garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu edo banatzaile lanerako prest. ☎ **682 518 370**
- Pertsona arduratsua lan bila. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen. Garbiketarako edo sukalde laguntzaile lanerako prest.
- ☎ **606 072 354**
- Emakumea lan bila: Garbiketarako egin eta nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna.
- ☎ **681 065 683**
- Mutil arduratsua baserrian edo nagusiak zaintzen egingo luke lan. Egunez nahiz gauez, etxean edo ospitalean.
- ☎ **606 072 354**
- Mutila eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Ohetik jaiki ezinda daudenak zaintzen esperientzia daukat. Erreferentzia onak.
- ☎ **616 328 060 / 943 744 028**
- Enpresa ikasketetan lizentziatutako bi lagun lan bila ari dira. Ekonomia, kontabilitate, fiskalitate eta lan arloan egingo lukete lan.
- ☎ **617 332 301**
- Emakumea lanerako prest. ☎ **617 800 314**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka, eta gauez ere bai. ☎ **680 121 252**

ETXEBIZITZAK.....

- Etxea alokatzen dut Errosario kalean.
- ☎ **639 353 331**

- Etxea salgai Amaña auzoan (Eibar). Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa eta balkoi itxia. Altzariekin eta margotu berria. 90.000 euro (15 milioi pezeta). Ahal den azkarren saltzeko premia.
- ☎ **652 716 564 / 943 742 962**
- Pisia hartuko nuke alokairuan.
- ☎ **620 712 478**

KINTOAK.....

- 1977koek bazkaria egingo dute martxoaren 16an. Maalako parkean batuko dira 13:00etan. Interesatuak 50 euro sartu beharko dituzte Kutxako kontu korronte honetan: 2101 0036 64 0013146055

BESTELAKOAK.....

- Joan zen domekan, hilak 17, Altus Alpine markako hiru bastoi ahaztu zitzaizkigun Aitolako aparkalekuan (Madariagan). Norbaitek aurkitu baditu, deitu mesedez. ☎ **658 729 032**
- Eratzuna galdu dut San Roke 32 inguruan. Estimatu handitan nuen. Aurkitu duenak deitu dezala, mesedez. ☎ **688 686 494**
- Ostalaritzako tresneria salgai negozio aldaketatik: kafetera, izotz makina, musika aparatua, garbigailua... Banaka ere saltzen dira.
- ☎ **665 720 977**
- Etxeko jatekoarekin hazitako txerria salgai.
- ☎ **680 442 695**

VI. URTEURRENA

RAMON UNTZILLA ARANBERRI



*Kaixo, Ramon
ta memorian zure irria
ta memorian zure begiak
ta memorian zure keinua
ta memorian zure izatea
ta memorian bizi zaitugu
ta memorian zure aiduru
ta memorian zaitugu katigu
ta memorian zaitugu*

Etxekoak

2007ko otsailaren 27an hil zen, 42 urte zituela. VI. urteurreneko meza asteazkenean, otsailaren 27an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.





• Zorionak, **Maddi**, zure hamargarren urtebetetze egunean. Familiako guztion partez, ondo pasa!



• Zorionak, **Mikell** Igandean 5 urte beteko dituzu eta primeran pasatuko dugu. Muxu familiakoen partez, eta bereziki, Alexen partez.



• Zorionak, **Eneritz**, bihar 3 urte beteko dituzulako. Ondo pasa, familiako guztion partez.



• Zorionak **etxeko bikiari**, bere lehenengo urtebetetzean. Xuban, ama, aita eta familiakoen partez.



• Lau muxu handi etxeko txikiari. Zorionak, **Luken!**



• Zorionak, **Gorka piratabol** Dagoeneko 4 urte potolo dituzu. Muxu asko, familiakoen partez.



• Zorionak, **Miren!** Muxu asko etxekoen eta bereziki Ikerren partez.



• **Goiatz**, gaur 10 urtel! Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partez, eta bereziki Udaneren partez.



• Zorionak, **Ane**, gaur 2 urte betetzen dituzulako. Patxoak, familiakoen, eta, bereziki, Josuren partez.



• Zorionak, **Xabi eta Paule**, otsailaren 26an eta 27an 32 eta urtetxo bat egingo dituzuelako, hurrenez hurren. Muxu handi bana, maite zaitugun guztion partez.



• Datorren igandean eta astelehenean zuen urtebetetzea da eta, zorionak, **Jesus Mari eta Niko**, Elgoibarko familiakoen partez. Muxu handi bana. Ondo pasa eta ondo segi.



AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.


Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

ESKERTZA

ROSA ITURRIA OTAMENDI



2013ko otsailaren 14an hil zen, 58 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.




I. URTEURRENA

JOSE SAN MARTIN MAGUREGI



2012ko otsailaren 22an hil zen, 82 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 23, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



22 barixakua

Bideo forum

21:30 Filma eta kafea
Haizeak antolatuta, bideo forum saioa egingo dute Kultur Etxean, Loredi Salegirekin.

Musika

23:00 Kontzertua
Bluestock taldeak kontzertua eskainiko du, Sinuosek antolatuta. Kultur Etxeko sotoan.

23 zapatua

Azoka

9:00 Azken zapatuko feria
Kalebarren plazan. Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera izango da, umeentzako gatzatu tailerra egingo dute eta abereak ere jarriko dituzte ikusgai. Eguerdian, Kale Kantariak irtingo dira kantuan.

Politika

13:00 Elkarretaratzea
Arnaldo askatu, politika askatu plataformak antolatuta, Kalegoen plazan.

24 domeka

Kirola

9:30 Mendi irteera
Herri Eskolako gurasoek antolatuta, Aitzorrotz (738 m.) mendira egingo dute irteera. Sigmako aparkalekuan batuko dira.

25 astelehena

Hitzaldia

17:00 'Conoce el pasado, entiende el presente'
Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

26 martitzena

Liburu irakurketa

18:00 'El elogio de la madrastra'
Vargas Llosaren liburua irakurriko dute, Gotzon Garate udal liburutegian.


Aurkezpena

19:00 Elgoibarko Izarraren 50. urteurrena
Elgoibarko Izarra kultur elkarteak 50 urte beteko ditu martxoan, eta urteurreneko ekitaldien aurkezpena egingo dute. Musika Eskolako auditorioan.

ZWEA

'Lincoln'

22, barixakua: 22:15
23, zapatua:
19:00/22:15
24, domeka: 19:00
25, astelehena:
21:30



'Saxana y el libro encantado'

24, domeka: 16:30



OKINDEGIA

24 domeka:
IBARRENEA

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez
Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta
Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

22 Etxeberria
23 Fernandez
Goizez: Garitao.


24 Fernandez
25 Barrenetxea
26 Zabaleta
27 Barrenetxea
28 Ibañez
1 Garitaonandia

Gauetz

22:00 - 9:00

Etxeberria
Garitaonandia

Garitaonandia
Barrenetxea
Etxeberria
Barrenetxea
Yudego
Garitaonandia



Otsailaren 27an,
asteazkenean,
sukaldaritza tailerra:
TORRADAK

MARTXOAREN 3AN ESKI IRTEERA.

Izena emateko
azken eguna,
otsailaren 24a.



ZINEMAKO IRRIBARREAK

Zure ametsak egi bihurtzen ditugu



ODONTOLOGIA OROKORRA

ORTODONTZIA

Invisalign < BERRITASUNA
Ezkutuko mihi-ortodontzia ikusezina < BERRITASUNA
Zeramika eta zirkoniozko bracket oso estetikoak < BERRITASUNA

PERIODONCIA

Diagnosi digital periodontala < BERRITASUNA
Análisi mikrobiologiko periodontal eta genetikoa < BERRITASUNA
Periodontitis-tratamendua kirurgiarik gabe < BERRITASUNA
LASER diodoa
Mentuat hortzoietan

AHO-KIRURGIA

Ateratze zailak eta sustrai-hondarrak
Azkenaginak ateratzea kirurgiarekin
Barneko hortzak ateratzea

INPLANTOLOGIA

Hezur eta hortzoi gabeziarentzako tratamenduak
Hezur-birsortzea biomaterial bidez < BERRITASUNA
Hortzoi-birsortzea
Inplantologia transzigmatikoa < BERRITASUNA
Hortz finkoak egunean bertan inplanteekin < BERRITASUNA

PROTESI FINKOA

Metalezko koroa libreak < BERRITASUNA
Zirkoniozko koroa puruak < BERRITASUNA
CAD-CAM koroak (ordenagailuz egindakoak) < BERRITASUNA
Karillak

MUGITU DAITEZKEEN PROTESIAK

Oklusioa eta ATM

OKLUSIOAREN DIAGNOSI DIGITALA < BERRITASUNA

ZURIKETA LASER bidez saio bakarrean < BERRITASUNA

ODONTOPIEDIATRIA (PADI)

ERRADIOLOGIA DIGITALA

SUDUR-LASAIGARRIA < BERRITASUNA

MUTUA ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL, FRATERNIDAD,
CARREFOUR LIFE, IMQ, AZKARAN, PREVISORA BILBAINA, SANTA LUCÍA,
AEGÓN/STONEBRIDGE, OCAÑO, AVANTSALUD, PADI...

ZERBITZU BERRIAK



ETENGABEKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

LARRIALDIETARAKO TELEFONO
BIDEZKO ARRETA
24 orduz
GALDETU



GALDETU 2. mediku-iritzia

Unibertsitate entzutetsuetan
irakasleak gara.
Ospea duen zentroa gara.

ETXEZ-ETXEKO ARRETA-ZERBITZUA



Etxeko arreta:
Pazientea jaso
eta etxera itzuli
GALDETU



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Promozio bereziak 2013ko martxoaren 15era arte, kupoi hau aurkeztuz

%20 Deskontua
hortz-
inplanteetan*

*Solilik hortz-inplanteetarako

%10 Deskontua
larunbatetan
egindako
tratamenduetan

LASER bidezko zuriketa
Hortzetarako arkatx zuritzailea
Higienea 525 €
BESTELAKO PROMOZIOAK: GALDETU

2013 KOMERTZIO ETA ENPRESEN GIDA

Elgoibar eta Mendaroko komertzio eta enpresen gida prestatzen dihardugu



Zure enpresaren helbidea edo telefono zenbakia eguneratu nahi badituzu, deitu **943 744 112 edo **943 743 704** zenbakira edo idatzi **barren.publi@elgoibarkoizarra.com** helbidera.**